



**Dabid Anaut**

EUSKARA TEKNIKARIA ♦

## Hausnartu

SUMATU IZAN DUT noiz edo behin bakarren bat haserre euskarazko “hausnartu” hitzarekin “gogoeta egin” adierazi nahi izaten delako: “Hausnartu? Behiak egiten du hori”, jenio biziz. Behiak egiten du, bai, arrazoirik ez zaio falta horretan, baina gauzak ez dira hain sinpleak, Itziar Lakari irakurri diogun arrazoibide batek erakutsi digunez.

Izan ere, mastekatzeko edo animalia batzuek jandakoarekin egiten duten aurrera-atzerako ibili hori adierazteko eta “gogoeta egin” adierazteko hitz bera erabiltzea ez da gure berezitasun eksklusiboa. Ingelesez ere egiten da *Chew* aditzarekin, edo gaztelaniaz *Rumiar* aditzarekin, esaterako. “*Ese está rumiando algo*”. Kasualitate hutsa ote? Ez, agian, neurozientziaren esparruan egindako esperimentuek erakutsi digutena kontuan hartuz gero.

Zenbait esperimenterak erakutsi dutenez, izan ere, badirudi mastekatzeko ekintzak baduela ariketa kognitiboetan kontuan hartzeko moduko eragin bat, arretan eta memorian esate baterako. Mastekatzean aktibatzen diren burmuineko atalek arretarekin eta memoriarekin zerikusia omen dute eta, mastekatuz aktibatu baldin badira, ondoren eginen den ariketa kognitiboan lagunduko dute, horietarako martxan edo lanean jarri beharreko burmuin atalak dagoeneko aktibatuta daudelako, ongi ulertu badugu behintzat.

*Mastekatzean aktibatzen diren burmuineko atalek arretarekin eta memoriarekin zerikusia omen dute*

Espero ez genuen lotura eta azalpena ikus genezake, beraz, gure laguna haserre bizian jarri zuen “hausnartu” hitzaren esanahi bikoitz horretan. Eta, bide batez esanda, Orotariko Euskal Hiztegiaren arabera gutxienez duela 200 urteko dokumentuetan aurkitu ditzakegu hitzaren lekukotasunak, zentzu batekoak nahiz besteak. “Asmakeria” balitz ere, ez litzateke gaur goizekoa izanen.

Topikoak dioenez euskaldunok ohi-tura handia dugu gauzak mahai baten inguruan egiteko, bazkari batean edo sikiera mokaduren batekin lagunduta. Bilerak eta gogoeta-saioak ere behin baino gehiagotan egin ditugu horrela. Bada, itxuraz orain neurozientziak lagunduko digu ohitura hori zurrutuz eta geure burua justifikatzen, jaki goxoak mastekatzen ari-tzeak gure gogo-jarduna indartu

dezakeela azaldu baitigu. Diskriminazio ariketatxoren bat egin beharko dugu agian, ez baita berdina izanen babarrunaz eta odolkitz lagundutako gogoeta eta entsalada arin batez lagunduko dena; eta, bestalde, zientzialariei galdetu beharko diegu ea zurrutaren inguruan ere antzeko deus aurkitu ote duten, gure hausnarketak bizkortuko dituen mastekatzeko ariketa zein likidorekin lagunduko dugun erabakitzeko. ■



DANI BLANCO



**Kattalin Miner**



KAZETARIA

## Birritan pentsatu

BETI PENTSATU IZAN DUT ez naizela oso pertsona ausarta. Ustela ere ez, baina gauza ohikoek (gauak, iluntasunak, gerrek) beldurtzen nauten horietakoa naiz.

Behin 18 urterekin, gau batez etxera bidean gizon bat azaldu zitzaidan zakila bistan. Halako beldur iltzatu bat esnatu zitzaidan, eta diotenez beldurrak paralizatu egiten omen du sarritan, edo senak korrika egitera bultzatzen. Nik ordea, nire burua hain kaskatu nuen hartan, birritan pentsatu gabe gizona gogor bultzatu eta ostikada bat eman nion sabelean. Lurrera erori zen ezustean, eta lurrean zela inguratu eta begietara begiratu nion eta gaztela-

niaz “ea hurrengoan birritan pentsatzen duzun” esan nion. Manto segi nuen etxerantz.

San Ferminen bezperan beldurrak bandoz aldatuko duela iragarri zigan eraso sexisten aurkako gaueko manifestazioak eta nik, inoiz baino barrurago sentitu nuen aldarria.

Izan ere, bada birritan pentsatzeko aukerarik oraindik, zeren bestela jakin jada nekata gaudela beldurrez bizitzen, eta zin dagizuet beldurrik ez dugula ohartzen garenean, guk geuk ere ez dakigula zertarako gai izan gaitezkeen. ■

